BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

581

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 17koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, mahastizaintza eta ardogintza sektorearen merkaturatze-baldintzak hobetzeko inbertsiotarako 2012. urterako laguntzen deialdia egiteko dena.

Egoera hori berbideratzeko, hau da, Batasuneko mahastizaintza eta ardogintzako ekoizleen lehiakortasuna areagotzeko eta ardoen kalitatea finkatzeko, ardogintza eta mahastizaintzako merkatuaren beste antolakunde komun bat ezarri da, eta bertan, aipatu sektorea eta hirugarren herrialdeekiko merkataritza laguntzeko programak aurreikusten dira.

MAB berri hori Kontseiluaren 2008ko apirilaren 29ko 479/2008 (EE) Erregelamenduak ezarri du (Mahastizaintzako eta ardogintzako merkatuaren antolamendu bateratua ezarri, 1493/1999 (EE), 1782/2003 (EE), 1290/2005 (EE) eta 3/2008 (EE) erregelamenduak aldatu eta 2392/1986 (EE) eta 1493/1999 (EE) erregelamenduak indargabetzen dituena); eta Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamenduak ere ezartzen du (Mahastizaintzako eta ardogintzako merkatuaren antolamendu bateratua ezarri duen Kontseiluaren 479/2008 (EE) Erregelamendua garatzeko arauak ezarri dituena, mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreko laguntza-programei, beste herri batzuekiko merkataritzari, ekoizpen-ahalmenari eta kontrolei dagokienez). Era berean, MAB berri hau 1234/2007 (EE) Erregelamendura gehitu da (Erregelamendu bakarra MABentzat) Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 25eko 491/2009 (EE) Erregelamenduaren bitartez; horretarako 1234/2007 (EE) Erregelamendua aldatu da eta 479/2008 (EE) Erregelamendua indargabetu da. Azkenik, Batzordearen 2010eko irailaren 1eko 772/2010 (EB) Erregelamenduak aldatu du 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamendua.

Merkaturatze-baldintzak hobetzeko inbertsioetarako laguntzeko neurria ardogintza eta mahastizaintza espainiarraren sektorea laguntzeko programaren barruan dago. Neurri horri dagokion laguntzak urriaren 31ko 1547/2011 Errege Dekretuaren bitartez arautuak izan dira.

Agindu honen bitartez, aipatu araudian erregulatutako eta jasotako 2012-2013ko kanpainarako laguntzetarako deialdia egiten da, hain justu merkaturatze-baldintzak hobetzeko inbertsioei dagokienez.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko epeak.

1.– Mahastizaintza eta ardogintza sektorearen merkaturatze-baldintzak hobetzeko inbertsioetarako laguntzak jasotzeko eskabideak, 2012-2013 kanpainarakoak, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2012ko otsailaren 29ra bitartean aurkeztu beharko dira. Laguntza horiek honako hauetan zehazturik daude: 2007ko urriaren 22ko Kontseiluaren 1234/2007 (EE) Erregelamendua eta urriaren 31ko 1547/2011 Errege Dekretua.

2.– Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira laguntza-eskabideak, izan ere, organo horrek kudeatuko baititu direlako laguntzak. Ingurumen, Lurralde

Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bulegoetan eskura izango dira eskabide-inprimakiak, honako helbide hauetan: Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz; eta www.nasdap.ejgv.euskadi.net web-ataria.

Bigarrena.– Izapidetzea.

1.– Aurkeztutako eskabideak baloratzeko, balioespen-batzorde bat sortuko da, eta honako kide hauek izango ditu: Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria, edo bere ordeak egiten dituena, eta batzordeko lehendakaria izango dena; bokal izango diren bi lagun, Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritzetako teknikarietakoak, hitz egiteko eta boto emateko eskubidea dutenak eta Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordearen erabakiz izendatuak; erabaki horretan izendatuko da batzordeko idazkari izango dena.

2.– Balorazio Batzordeak Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariari bidaliko dio eskabideei buruzko lehentasunezko proposamena, eta zuzendari horrek Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko programak hautatzeko Batzorde Nazionalari igorriko dio lehentasunen zerrenda; eta batzorde hori, programa hauek ebaluatzeko, otsailaren 27ko 244/2009 Errege Dekretuaren arabera eraturikoa da.

Hirugarrena.– Ebazpena.

1.– Nekazaritza eta Landa Garapeneko Arloko Batzarrak Hautatutako inbertsio proiektuen behin betiko zerrenda jakinarazi ondoren Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariak ebatziko du aurkeztutako eskabideak.

2.– Ebazpena, gehienez jota, sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskabidea aurkeztu zen egunetik hasita. Epe hori igarota, esanbidez ebazpenik egon ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu behar dute interesatuek, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan.

3.– Ebazpen positiboa izanez gero, onuradunek Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendari eskudunari jakinarazi beharko diote ezarritako baldintzen ebazpena onartzen dutela. Onarpen horrek berme bat, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen aldekoa osatu izanaren justifikazioarekin batera joan beharko du, eta berme horrek hartu beharko du Europako Erkidegoaren finantzaketaren urteko zenbatekoaren % 15, programa zuzen exekutatzen dela bermatzearren hain justu ere.

Laugarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, era beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, edo zuzenean, administraziorekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, betiere, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bosgarrena.– Ondorioak.

Argitaratu eta hurrengo egunetik hara sortuko ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 17a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.